

JUAN OROBIOGOITIA BHI

HEZKUNTZA ORIENTABIDEA

URTEKO PLANA

2014-2015 IKASTURTEA

ORIENTATZAILEA: Yolanda Gutiérrez Ibarruri

AURKIBIDEA

1.-SARRRERA

2.-PLANGINTZAREN IKUSPEGIA

- ◆ Integratua
- ◆ Prozesuzkoa
- ◆ Printzipioak

3.- ORIENTATZAILEAREN EGINKIZUNAK

4.- HELBURUAK

5.-LAN ESPARRUAK

- a. Ikastetxearen koordinazioa eta laguntza
- b. Aniztasunari arreta
- c. Tutoretza
- d. Orientabide akademiko- profesionala
- e. Familiekiko arreta eta kanpoko zerbitzuen koordinazioa

6.-JARDUERA LERROEN GARAPENA:helburuak, ekintzak,metodologia eta baliabideak

6-1.- Ikastetxearen koordinazioa eta laguntza

6-2.- Aniztasunari arreta:

- a. Ikasleak guztira
- b. HPB-NCE
- c. Curriculum Desberdinak
- d. Indartze neurriak:Berrikuntza proiektua - Talde malguak

6-3.-Tutoretza

6-4.- Orientabide akademiko -profesionala

6-5.-Familiekiko arreta eta kanpoko zerbitzuen koordinazioa

7.- EBALUAZIOA

8.- ERANSKINA: zehaztapen batzuk

- a. Bilera orduak
- b. Orientazio akademiko profesionala
- c. Familiei zuzendutako saioak
- d. Hezkuntza Afektibo Sexuala
- e. Drogomenpekotasunaren prebentzio programak
- f. Genero indarkeria
- g. Autoestimua
- h. Tutoretza saioen ikasturteko plana (aparteko txostenean)

1.-SARRERA.-

Juan Orobiogoitia BHI Iurretan kokatua dago eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau mailak eta Batxilergoko lehenengo eta bigarren maila eskainiko ditu ikasturte honetan, guztiak D ereduan. Batxilergoa *Zientifiko-teknologikoa* eta *Giza-gizarte zientzien* modalitateetan emango ditu. Ikasleria, Iurretakoez gain, Otxandio, Durango eta Zaldibarko ikasleek osatzen dute, gehiengo batean. Baina, batzuk baditugu Abadiño, Izurtza, Garai, Berriz, Elorrio edo Zornotzakoak ere.

DBH, orientabide etapa.

DBHren helburua *oinarrizko giza gaitasunetan hezi* eta ikasle **guztiei** kulturaren elementu garrantzitsuenak transmititzea da. Oinarrizko eskolaldia den aldetik, ikasle bakoitza oinarrizko curriculum gaitasunetan ahal duen mailarik onena lortzera bideratua egongo da.

12-16 urte bitarteko aldia haurra izatetik nerabe izatera igarotzen den sasoia da. Ez da denbora lasaia, krisiak eragindako prozesua bizi izaten dute eta jokabide pertsonal eta sozialean egokitzapenak egitera pasatzen dira. Une honetan, askotan modu gatazkatsuan, norbanako nortasunaren oinarriak berregituratu eta finkatu egiten dira, eta baita gizarteratzeko dituen proiektuak eratu ere.

Horrela bada, jorratuko den tutoretza jarduerak ondorengo ildo nagusi hauek izango ditu erreferentzi lez:

1. **zikloa:** tutoretza lanak lehenetsuna emango dio ikaslea erreferentziatzeko ikastaldearekin integratzeari eta etapa berrira egokitzeari. Arreta berezia eskainiko zaio ikaslea **etapan** sartzeari. Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin harremanetan, bertako informea jaso eta aztertuko dira, egokitzapen arazoak saiheste aldera. Lan eta ikaste ohiturak finkatzeari ere arreta berezia jarriko zaio, batez ere lehenengo mailan.
2. **zikloa:** pixkanaka hezkuntza interesak eta lanbide asmoak azaltzen eta finkatzen dira. Horrela bada, bere burua ezagutu eta etapa amaieran izan ditzakeen aukerak aztertuko dira. Era berean, ikasle zereginetan edo talde harremanetan sakonduko da.

Mailak aurrera doazen heinean, Aniztasunari hobeto aurre egiteko, curriculumaren alderdi komuna murriztu egiten da, aukerako eskaintza zabaldu eta azken kurtsuan hautazkotasuna sartu. Curriculum desberdinak eratzeko aukera ere ematen da bide arruntetik DBHko oinarrizko gaitasunak eskuratzeko zailtasunak dituztenentzako. Orientazio eta Tutoretzak aukerakotasunak eskaintzen duen ibilbidea aztertu, bakoitzarentzat egokitzapen prozesua bideratu eta curriculum desberdinak eratzen esku hartuko dute. Etaparen azken urtean hezkuntza eta lanbide etorkizunari buruz hartu behar duen erabakian aholkularitza emango du zikloaren amaieran, bakoitzari dagokion *orientabide aholkua* formulaturik .

Batxilergoa

Bi urteko iraupena duen **derrigorrezkoaren ondorengo** ikasketa etapa da batxilergoa. Ondoren egingo diren ikasketekin lotura estua du, bai Unibertsitateko ikasketekin, bai Goi Mailako Berariazko Lanbide Heziketarekin ere.

Ezagutza eta trebetasun batzuen bidez, etapa honetako ikasketek giza adimen heldutasuna lortzen lagunduko duen heziketa eman eta hiritar bezala arduratsu eta kritiko izateko formazioa emango dute. Gainera, gaztearen interesak bideraturik ondoren egin nahi dituen ikasketetarako oinarri bezala balioko duten ezagutzak ematea izango du helburu.

Ikasketa hauek orain artekoek baino espezializazio handiagoa izango dute eta beste maila bateko ikasketak egiteko prestatuko dute bereziki. Batxilergoko ikasketek DBHkoek baino sakontasun maila handiagoa dute eta ondorioz, ikasketeko estrategia hobek izatea eskatzen dute eta ahalegin pertsonal handiagoa egitea.

Orientazioa ikastetxean

Orientabide plana ikasturte hasieran zuzendaritza taldeari emango zaio, zeinek ikasturtea antolatzeke unean kontuan izango duen berau aurrera eramateko antolamendu egokia.

Tutoretza planari dagokionean ikasturte hasieran eta mailaka tutoreei aurkeztuko zaie eta, beharrezko diren aldaketak egin ondoren, guztion artean erabakiko dugu urteko plangintza. Saioren garapenean erabiltzen diren material guztiak mailaka artxibatuko dira eta orientazio mintegian gorde. Asmoa hurrengo ikasturte hasieran materialen karpetak osatuak eta mailako tutoreen esku izatea izango litzateke.

Orientazio mintegi hau honela osatzen da:

- ◆ Curriculum desberdinetako 2 irakasle
- ◆ Pedagogia Terapeutikako irakasle 1
- ◆ Orientatzailea

2.- PLANGINTZAREN IKUSPEGIA

2-1.- Planteamendu integratua

Orientazioa curriculumean integratua eta irakasle talde osoak duen erantzukizun bezala ulertzen da, tutoreak koordinatuta eta orientabide eta laguntza zerbitzuek lagundurik. Orientazio prozesua irakasle lanean oinarritzen da. Irakasleak bere jardunean ikasleen gaitasun eta jarrera desberdinak antzeman eta identifikatuko ditu eta bere metodologia haien gaitasunak ahal den ondoen garatzeko moduan egokitu; beti ere, lan hori guztia, curriculumean integratua.

Orientazioa eta Tutoretza prozesua hertsiki lotuta daude hezkuntzaren helburuekin eta hezkuntza kompetentzia orokorrekin.... Denek laguntzen dute (arlo bakoitzak bere

ikuspegi partikularretik) pertsonaren garapena lortzen, dimentsio indibidualean, sozialean eta naturalean; eta hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzen (pentsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi)

(Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculum, 2005)

Tutorearen irudia funtsezko elementua da eskolako bizitzan Bere funtzio nagusia irakaskuntza-ikasketa prozesuak eta eskolan ikaslearen hazkundera eragiten duten elementuak koordinatzea da. Bere zeregina lau ildo nagusi hauetan aurreikusten da:

- ◆ familiarekin harremanetan
- ◆ irakasle taldearekin hezkuntza jardueran
- ◆ ikasleen talde harremanetan
- ◆ ikasleekin norbanako prozesuan

Lan horiek burutzeko tutoreak orientatzailearen laguntza izango du.

2-2.- Prozesu planteamendua

Orientazioa ez da etapako momentu puntual batean ematen dena; baizik eta etapan zehar garatzen den prozesua. Ebaluazio jarduerak, irakatsi eta ikasteko jarduerekin batera, garrantzi handia izango dute prozesu hau bideratzeko.

2-3.-Printzipioak

Oinarrizko printzipioak, hezkuntza **muinbakarra (konprensiboa) eta aniztasunaren trataera** dira; bi kontzeptuok elkarren osagarri bezala ulertuak. Eta ikaslea pertsona estandarizatua barik, bere izaera eta ezaugarri propioak dituen pertsona norbanako bezala hartua.

Horrela bada, orientazio prozesuak honelakoa izan beharko du:

- ◆ **Orokorra:** ikasle guztiei eta norbanakoari zuzendua.
- ◆ **Etengabekoa:** ikasleak eskolatzean hasten da eta etapa amaitzean bukatzen den prozesua; ez une puntual batzuetara bakarrik zuzendua.
- ◆ **Pertsonalizatua:** indibidualizatua eta pertsona osoa hartzen duena, bere integritasunean.
- ◆ **Prebentziozkoa:** prebentzio izaera du; ahal den neurrian, arazoei aurre hartzera zuzendua dagoena.
- ◆ **Autonomiaren bultzatzailea:** norbanako bakoitza bere garapenaren erantzule gisa, erabakiak hartzeko libre izanik, auto orientaziorantz bideratua.
- ◆ **Lankidetzazkoa:** denen arteko erantzukizuna, parte hartzen duten irakasle guztien artekoa; familia eta ikaslearekin elkarlanean. Beharrezko kasuetan, inguruko *laguntza zerbitzuekin* ere koordinatua.
- ◆ **Irakasle funtzioan integratua:** curriculumean integratua eta irakasle funtzioen barnean dagoena eta ebaluazioan jasoa.

3.-ORIENTATZAILEAREN EGINKIZUNAK:

Orientatzaileak funtsezko bi zeregin ditu: batetik, irakasleekin batera parte hartzea, animatzea, aholkatzea eta lan egitea ikastetxeetan hezkuntzan esku hartzeari buruz erabakitzeke foroetan, hala nola zuzendaritza-taldeetan, batzorde pedagogikoetan, sail didaktikoetan, irakasle taldeetan eta tutore taldeetan, eta, bestetik, proiektuak, ikasle guztientzako ebaluazio-diseinuak eta esku hartzeko irizpideak sortzen laguntzea eta ikasleen hezkuntza- eta orientazio-zereginetan laguntzea. Horrenbestez, Orientazio Planak guztiak aipatu behar ditu.

Besteak beste, hauek dira orientatzaileen eginkizunak:

a) Orientazio Saileko buru izatea, alegia, Orientazio Sailaren bilerak planifikatzea eta gidatzea eta Saileko kide bakoitzaren lanak koordinatzea.

b) Orientazio Plana prestatzea eta ikastetxearen tutoretza-plana prestatzeko aholkuak ematea tutoreei, zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, eta Orientazio Plana Sailaren urteko planaren eta urteko txostenaren barruan sartzea.

c) Ikastetxeko ikasleei lanbide-orientazioa emateko programa bat prestatzea etapa guztietarako eta hura garatzen laguntzea. Horretarako, bokazioari buruzko orientazioa emateko prozesuak diseinatu behar dituzte, jarduera jakinek eratutakoak, eta ikasleen arteko berdintasuna bultzatu behar dute etorkizunerako lanbide bat hautatu behar dutenean.

d) Ikastetxeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordearekin (batez ere, ikasketa-bururekin) elkarlanean jardutea eta jarduketa-planak eta proposamenak aurkeztea sail didaktikoak eta irakasle taldeak koordinatzeko.

e) Hezkuntza berritzeko eta ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak etengabe hobetzeko programak sustatzea eta horrelakoak egiten laguntzea.

f) Tutorearekin eta taldeko irakasleekin batera ikasleek ikasteko zailtasunak dituzten egoerak aztertzea eta hezkuntza indartzeko eta, hala badagokio, curriculuma egokitzeko neurriei buruz aholkatzea.

g) Ikastetxean jokabide- eta elkarbizitza-arazoak sortzeari aurrea hartzen eta horrelakoak konpontzen laguntzea.

h) Egokia bada, bere espezialitateko ikasgaiak ematea.

i) Ikastetxeko irakasleei aholkuak ematea berriazko arreta emateko plan eta programak (curriculum anitzeko gelak, zereginak ikasteko gelak, hezkuntza berriaz sendotzeko proiektuak) diseinatzeko, egiteko eta ebaluatzeko eta haien jarraipena egitea.

j) Maila bakoitzeko tutoreekin koordinatzeko bilerak egitea aldizka, taldeko tutoretza-planaren bilakaera eta ebaluazioari buruz aholkatzeko, eta, oso bereziki, ikasleak orientatzeko programatutako jardueri buruz.

k) Ikastetxetik kanpoko hezkuntza- eta gizarte-eragileekin eta komunitate-eragileekin koordinatzen laguntzea, ikasleen jarraipen egokia egiteko, ikasleak integratzeko eta ikasleek ikasketetan arrakasta izatea bermatzeko.

Ikasketa-buruek lagundu behar diete orientatzaileei hala ikastetxeko tutoreekin nola ikasleak orientatzeko prozesuekin zerikusia duten profesional guztiekin lan egiten etapa guztietan (DBHn, Batxilergoan eta heziketa-zikloetan).

(EBAZPENA, HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO SAILBURUORDEENA, BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO BERARIAZKO INSTITUTUETAN 2014-2015 IKASTURTEA ANTOLATZEKO MODUARI BURUZKOA)

4.-HELBURUAK

- ◆ Hezkuntza prozesua ikasleen beharrezanetara egokitu curriculum eta metodologia egokitzapenen bidez .
- ◆ Hezkuntza prozesuaren pertsonalizazioan lagundu bere alderdi bikoitzean:
 - norbanakoan
 - eta taldean integratua .
- ◆ Heldutasun pertsonala, balore, jarrera eta jokabide koherenteen garapena eta erabakiak hartzearen prozesuak indartu, bere proiektu pertsonala garatzen joateko .
- ◆ Ikaskuntza zailtasunak aurreikusi eta porrotak eta ikasketak uztea saihestu .
- ◆ Hezkuntza komunitateko kideen artean (irakasle, ikasle, guraso, etab.) komunikazio uneak eratu eta elkarreragin egokia bultzatu .
- ◆ Elkarbizitza demokratikorako arauen errespetua suspertu eta gatazkak bideratzeko estrategiak landu .
- ◆ Bereziak edo espezializatuak izateagatik irakasleen esku ez dauden hezkuntza elementuak bermatu .

5.- LAN ESPARRUAK

Helburu horiek lortzeko laguntza gisa, beti ere diziplinartekotasunean oinarrituta, orientazioak honelako lan esparruetan izango du parte hartzea:

- 1.- Ikastetxearen koordinazioa eta laguntza
- 2.- Aniztasunari arreta
- 3.- Tutoretza
- 4.- Orientabide akademiko – profesionala
- 5.- Familiarikiko arreta eta kanpoko zerbitzuen koordinazioa

Bestalde, ikasleen orientabidea etengabeko prozesua dela eta era bateratuan burutu behar dela kontuan hartuta, honako eremuetan ardazturik egongo da:

- ◆ **Garapen pertsonalean.**
 - Auto ezagutza eta auto kontzeptua
 - Elkarbizitzarako hezkuntza

◆ **Irakatsi eta ikaste prozesuan**

- Ikasteko trebetasunak
- Ikasten ikasi
- Pentsatzen irakatsi

◆ **Erabakiak hartzean**

- Egin beharreko hautaketarako tresnak eskaini.
- Orientazio akademikoa eta lanbiderakoa eskaini

6.-JARDUERA LERROEN GARAPENA

6-1.- Ikastetxearen koordinazioa eta laguntza

Helburua: Orientazio mintegiko planaren garapena koordinatu eta bermatu

Helburu honen *antolaketa – estrukturak* zuzendaritza taldeak egokitua eta lagundua izatea eskatzen du

Ekintzak:

- DBH eta Batxilergoko tutoreekin asteroko bilerak mailaka. Bilera hauetan honelako gaiak jorratuko dira:
 - asteko tutoretza saioa prestatu DBHn eta hamabosterokoa Batxilergoan
 - ikasleen premiak eta jarraipena
 - zuzendaritzatik edo proiektuetatik bideratutako informazio edo ekintzak
 - tutoretza plangintzaren ildo berriak
 - Ikasleekin tutoretza saioak astero izango dira DBHn eta hamabostero Batxilergoan.
- Zuzendaritza taldearekin asteroko bilerak
- Curriculum Desberdinetako irakasleekin hamabostero bilerak ikasleen eta programaren jarraipena egiteko
- Orientazio mintegiaren asteroko bilera.
- Pedagogia Terapeutikako irakaslearekin astero bilerak ikasleen eta programaren jarraipena egiteko eta koordinatzeko.
- Mailako irakasleekin bilerak beharizanen arabera
- Kanpo aholkularitzaz koordinazio bilerak: Berritzeguneko HPBko aholkularia, Gizarte Laguntzailea,...
- Mintegiko ekintzak aurrera eramateko baliabide informatiko zein bibliografikoak eskuratu.
- Hilabetean behin Berritzeguneko Orientazio mintegiaren bilerak.

6-2.- Aniztasunari arreta. Ikaste irakaste prozesuari laguntza

Helburua: Aniztasuna eta ikaste irakaste prozesuarentzat laguntza neurriak koordinatu, aholkatu eta garatu

a. **Ikasleak guztira:** ikasturte honetako ikasleria 290 ikaslek osatzen dute.

Mailaka honela banatzen dira:

- DBH1: 3 talde, 69 ikasle
- DBH2: 2 talde, 46 ikasle
- DBH3: 3 talde, 62 ikasle, hauetarik bat DibertsifikazioCurriculum taldea
- DBH4, 2 talde, 46 ikasle,.
- Batxilergoa 1: 1 talde, 23 ikasle
- Batxilergoa 2: 1 talde 24 ikasle

Aniztasunari laguntza emateko honelako neurriak jarriko dira :

b. HPB-CNE: (3 ikasle) Pedagogia Terapeutikako irakasleek honelako jarduerak egingo dituzte:

- CNEak egiten lagundu edota jarraipena eman
- CNEa duten ikasleei arreta berezia eskaini arlo ezberdinetan.
- HPBetako zerrendetan daudenei arreta berezia eta jarraipena
- Irakasle taldearekin edo inplikaturiko pertsonekin koordinazioa.
- Egokitzapen curricularren ebaluazioa egin.
- Familia eta kanpo erakundeekin koordinazioa.
- Guzti honetarako Berritzeguneko aholkulariaren eta zentroko orientatzailearen laguntza eta koordinazioa izango dute.
- CRI ko baliabideak jasoten duen ikasle bat,baina ez du behar PTirakaslearen laguntza.

c. Curriculum Desberdinak:

DBH 3an talde bat dugu 12 ikaslerekin, eta DC programa ofizialaren bi urteko proiektua da.Talde honen helburua DBHko gutxiengoak euren erritmorat lorturik,etaparen amaieran titulua lortzea izango litzateke.

e. Indartze saioak: (ikus *Ikastetxeko Urteko Plana*)

e-1.- Lehenengo maila

Ikasle guztiek jasoko dute indartzea,*talde malgu* erara antolatuta eta hizkuntza gaitasuna lantzeko helburuarekin.Hau da lehenengo mailako 2 taldeak hiru taldetan banatuko dira beraien ikasketa maila eta erritmoaren arabera sailkaturik.Astean bi saiotan *ikaste ohitura eta teknikak* indartuko dira,batez ere hizkuntza gaitasuna sendotzeko bideratuak.

Astean bi saio horietan landuko diren gaiak honako hauek izango dira:

- Talde 1: Ingelesez.
- Talde 1: Matematikak indartuko ditu.
- 3 talde malguak zailtasunen arabera.

e-2.- Bigarren maila

a. Kasu honetan ere, ikasle guztiek jasoko dute hezkuntza indartzea asteko bi saiotan. Helburua hizkuntza gaitasuna indartzea da; ahozkoa eta idatzia.

Prentsa eta Irrati tailerren bidez emango da. Bigarren mailako hiru taldeak lau taldetan banatuko dira saio hauetarako. Ikasturtean zehar guztiak pasatuko dira bi tailerretatik. Talde batek ingelesez emango du prentsa eta Irratia.

b. Matematika, gaztelera eta euskera arloetan, bigarren mailako hiru taldeak lau taldetan banatuko dira, talde txikiagotan indartzeko arlo hauek.

Orientazio mintegitik honelako parte hartzea izango da:

- Orientatzaileak:
 - Curriculum Desberdinen, Hezkuntza Premia Bereziak eta Hizkuntza Indartze Proiektuko plangintzaren koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa:
 - Astero bilerak inplikaturako irakasleekin: DC eta Laguntza Gelako irakasleak.
 - Bakarkako programen garapenean parte hartu
 - Programen jarraipena
 - Ikasleen jarraipena
 - Ebaluazio psikopedagogikoa
 - Bakarkako/taldeko elkarrizketak familia eta ikasleekin beharrezan araberak.
 - Prozesuaren azken ebaluazioa eta proiektu berriaren proposamena
 - Informazioa eta materialen bilaketan laguntza
 - Familia eta kanpoko instituzioekin zein agenteekin koordinazioa
- DCko irakasleak:
 - Programaren garapena eta ikasleen jarraipen hurbila egin. Tutoretza konpartitua izango dute bi irakasle artean
 - Bakarkako programaren elaborazioa
 - Koordinazioa
 - Familiarekin harremanak.
- Pedagogia Terapeutikoko Irakasleak:
 - Programaren garapena eta ikasleen jarraipen hurbila
 - Tutoreari edo arloko irakasleari Curriculumaren Norbanako Egokitzapenaren (CNE) elaborazioa egiten lagundu.
 - Koordinazioa tutore, arloko irakasle eta orientatzailearen artean.
 - Familiarekin harremanak.

- Indartzeak:
 - Orientatzaileak indartze irakaslearekin bilera egin du, beharrezan araber. Helburua klase hauek antolatzen lagundu, materialak prestatzen lagundu eta jarraipena egin.

Erabiliko diren hezkuntza programak:

- Dibertsifikazioan: CDI-IDCk eta Berritzeguneek eginiko Oinarrizko Programetan eta DBHko helburu orokorretan ardatzuta egongo dira, behar diren aldaketak eginik ikasleen ezaugarrietara egokitzeko, euren maila, interes, beharrezan eta aurrerapena kontuan izanik. Aurreko ikasturteetako esperientzian oinarrituz, material berriak egokitu dituzte eremuko irakasleek teknologia berriei egokituta

Hona arte esandakoa aurreikusia dagoen zeregina da, baina, argi izango dugu orientazioaren helburu garrantzitsuena honako hau dela: *ikasketa zailtasunak edo hezkuntza beharrezan bereziak dituzten ikasleak ahal denik azkarren identifikatu, arazoak prebenitu eta orientatzen irakasleekin kolaboratu; horrela kasu bakoitzean egokiak diren neurriak bideratzeko.*

Arloko irakasleak sumatutako arazoen berri tutoreari emango dio. Tutorea da ikaslea ondoen ezagutzen duena eta bera izango da lehenengoa ikaslearen zailtasunak edo beharrezan jasotzen. Orientatzailearekin edota Pedagogia Terapeutikako irakaslearekin harremanetan jarriko da eta, kasua aztertu ondoren, jarduera plana eratu eta martxan jarriko da.

Arazoa serioagoa balitz eta hala erabaki, kanpoko laguntza zerbitzuen esku-hartzea eskatuko litzateke edo halakoren batera deribatu. Familiak horren guztiaren berri izango du aurreikusitako prozesuan lagundu eta parte har dezan.

6-3.- Tutoretza

Tutorea izendatzeko irizpideak: Tutorea taldeari asignatura bat baino gehiago ematen dion irakaslea izango da eta *ahal denik irakasle gutxien taldetik pasatzea* izango da klaseak antolatzean erabiliko den irizpidea, lehenengo mailatan behinik behin. (*Ikusi ikastetxeko tutoretza plana*)

Helburua: Tutoreak koordinatu, aholkatu eta lagundu tutoretza jardueran, bere garapenerako espazioak sortuz eta behar den materiala eta baliabideak eskuratuz

Tutoretza plangintzan proposaturiko ekintzak lau eremuen inguruan sartzen dira:

1. Garapen pertsonala.
2. Pertsona arteko harremanak.
3. Ikaste - irakaste prozesua.
4. Orientazio akademiko profesionala.

Helburu zehatza 1: Ikaslearen integrazioa erraztu bere taldean eta ikastetxean

Ekintzak:

- Ikasturte hasierako harrera saioak
- Ikasturtearen azalpena: ordutegia, planoak, irakasleak, ebaluazioak,...
- Delegatuaren hautaketa
- Taldeko kohesioa bultzatzen duten ekintzak
- Ikastetxe eta klaseko arauak ezagutzeko jarduerak

Ekintza hauek klaseko lehen egunean eta urria eta azaroko hilabeteetan egingo dira

Helburu zehatza 2: Ikaslearen ezaugarri pertsonalak ezagutu eta adaptazio arazoak antzeman. Lehen Hezkuntzako eta DBHOrengo ikastetxeekin koordinatu

Ekintzak:

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin (Maiztegi, Zaldibar eta Otxandioko) koordinazio bilerak egingo dira informazioa jasotzeko eta aurreko ikasturteko ikasleena itzultzeko .
- DBHOko etapa koordinatu eta lurreta GMLHIarekin koordinazioa hemendik joandako ikasleen jarraipena egiteko .
- Ikaslearen erregistro pertsonala egin
- Elkarrizketa pertsonalak izan
- Gelako soziograma egin 1. eta 2. mailan

Baliabideak:

- Galdesorta pertsonalak
- Entrebistarako ereduak eta teoria
- Soziograma

Galdesortak lehen bi hilabeteetan egingo dira
Elkarrizketak tutoreek eta irakasleek hala deritzotenean
Soziograma urri azkenetan edo azaroan

Helburu zehatza 3: Ikasteko estrategiak indartu

Ekintzak:

- Ikasketa errazten duten baldintzak landu
- Ordutegi pertsonala egin
- Agendaren erabilera bultzatu eta indartu.

Helburu zehatza 4: Ikasleengan erabakiak hartzeko gaitasuna landu (**Helburu honen azalpen zehatzagoa eranskinean azaltzen da. Ikus TUTORETZA PLANA*)

Ekintzak:

- Aukerakotasuna eta Hautazkotasunaren aukerak ezagutu eta euren eragina ondorengo ikasketetan ezagutzera eman
- Maila bakoitzera egokitutako *Kasuen azterketak* egin prozesua sakonduz
- Auto ezagutzarako galdesortak egin
- Hezkuntza sistemaren azalpena eta DBH ondorengo aukerak sakondu
- Batxilergoaren ondorengo aukerak eta lanbideak aztertu Batxilergoan.

Helburu zehatza 5: Bakoitzaren identitatearen garapena lagundu: irudi positiboa, auto - kontzeptua, auto - estimua eta integrazio pertsonala eta soziala landu, giza trebetasunak jorratu ereduaren ezagupena eta erabileraren bitartez. Baita elkarren arteko harremanak sendotzea bideratu elkarbizitzarako urratsak emanez.

Ekintzak: tutoretza saioetako plangintzan zehaztuta daude, baina, batez ere, eguneroko harremanetan izango dira kontuan: irakasle-ikasle, ikasle-ikasle harremanetan. Baita beste arlo batzuk lantzen dituzten jarduera puntualetan ere. Ikasturte honetan, bereziki, bi programa hauek landuko dira: **autoestimua** hirugarren mailan eta **genero indarkeria** bigarren mailan.

Helburu zehatza 6: Irudi pertsonala, auto ezagutza, errespetua eta auto estimuarekin erlazionatuta, giza gorputzaren funtzionamendua ezagutu

Ekintzak:

- Drogen erabileraren ezagupena
- Hezkuntza afektibo sexuala
- Minbiziaren Prebentzio programa maila guztietan

Mankomunitateko adituek landuko dituzte lehenengo bi gaien inguruko programak; H. Afektibo-Sexuala eta drogen prebentziorako trebeziak garatze bidean .

Helburu zehatza 7: Ebaluazio saioak planifikatu eta garatu ikaslea bere prozesuarekin jabetzeko.

Ekintzak:

- Auto ebaluazioa egin
- Ebaluazio ondorengo hausnarketa bideratu

Ebaluazio saioen aurreko eta ondorengo tutoretza saioetan gaia landuko da hausnarketa bideratuz.

6-4.- Orientabide akademiko -profesionala

Helburua: Ikasleen orientazio akademiko profesionala garatu informazio eta auto orientazio ekintzak diseinatuta

Erabakiak hartzeko programaren barruan ekintza bereziak egingo dira DBH 4an eta Batxilergo 2an .

Informazio akademikoa, hautazkoena eta auto ezagutza DBH 1, 2, 3 eta Batxilergo 1ean.

Ildo nagusiak honako hauek lirateke:

- 4.DBHn etapa aldaketaren informazio guztia, Loli Muzasen *Aukeratu DBHn* txostenean oinarritua.
- Batxilergo 2an autore berdinen *Neure erabakia* txostena landuko dute
- Hautazkotasuna eta aukerako esparruen informazioa DBH 3an
- Unibertsitate, Heziketa Ziklo eta lan munduaren informazioa DBH 4an eta Batxilergo 1 eta 2an.

- Familiei zuzendutako orientazio akademiko profesionalaren gaineko informazio bilerak 4. mailan.
- Orientatzailearekin elkarrizketa izateko aukera, dituzten dudak azaltzeko
- DBH Oko Batxilergoa zein Lanbide Heziketako informazio zuzena jasoz .
- Lanbide Heziketako azokara bisita 3 eta 4. mailako ikasleek eta Batxilergoek .
- *Orientazio Kontseilua* DBH 4. amaieran

6-5.- Familiekiko arreta eta kanpoko zerbitzuen koordinazioa

Helburua 1: Familia-zentroaren arteko harremanak sendotu, ikaslearen ikaste eta orientazio prozesuan inplikaturik

Ekintzak:

- Tutore – familien arteko bilerak
- Bakarkako elkarrizketa familia eta tutorearen artean euretako edozeinen eskariz
- Bakarkako elkarrizketak familia eta orientatzailearen artean
- Hitzaldi informatiboak eta formatiboak familiei zuzenduak

Familia tutorearen arteko bilera orokorra urrian egingo da eta elkarrizketak ebaluazio ondoren eta beharrezana ikusten denean

Orientazio sailetik familiei eskainitako hitzaldi informatibo eta formatiboak bigarren ebaluazioan zehar. (*Puntu honen zehaztasun gehiago eranskinean*)

Helburua 2: Inguruko giza laguntza erakundeekin eta beste hezkuntza instantzia batzuekin ikastetxearen harremanak eta komunikazioa koordinatu

- Berritzegunearekin koordinazioa, orientazio zerbitzurako, Hezkuntza premia berezidun kasuetarako eta atzerriko ikasleen proiekturako:
 - Informazioa eta materiala jasotzeko
 - Proiektua egiteko laguntza eta aholkularitza izateko
 - Arazo eta zailtasunen aurrean laguntza jasotzeko
 - Iritziak eta erabakiak kontrajartzeko eta behar denean kolaboratzeko
- Udaleko asistentzia zerbitzuak eta sozio kulturalekin koordinatu *eskolaz kanpoko* ekintza antolatzeke, arazo bereziak deribatzeke, informazioa edota materiala jasotzeko.
- Galdakaoko Osasun Zerbitzuekin edo ikasleak tratatzen dituzten adituekin koordinatu arazoekin dauden ikasleen laguntzarako.
- Foru Aldundiko Ongizate Saileko zerbitzuekin, laguntza behar duten ikasleen kasuak bideratzeko edo/eta koordinazioan lan egiteko.
- Kanpo zerbitzuekin koordinatu: Lanbide Hastapena, Hezkuntza Saila, ... ikastaroak, lanbiderako irteerak eta unibertsitate ikasketei buruzko informazioa izateko.
- Beharrezkoa ikusten den beste edozein erakunderekin koordinatu

7.- EBALUAZIOA

Jarraiko ebaluazioa egingo dugu markaturiko helburuak betetze bidean, beharrezko ikusten diren aldaketak eginez.

Ekainean memoria egingo da eta hurrengo ikasturterako proposatzen diren hobekuntza neurriak jasoko dira.

Tutoretza plana mailako tutoreekin baloratuko da ekainean eta ondoren memoria honetan bilduko dira mailako tutoreek egindako balorazioak eta proposatutako aldaketak; baita ikasleen balorazioa ere.

Halaber, PT,DC taldeetatik egindako balorazioak oso kontuan izango dira. Nolanahi ere, ikastetxeko hezkuntza komunitatetik egon daitezkeen iradokizunak jasotzen ahaleginduko gara, hurrengo ikasturterako hobekuntza bidean .

8.-ERANSKINAK

8-a.- BILERA ORDUAK :

- **TUTORETZA BILERAK :**
 - **DBH1:** astelehena: 9:25 – 10:20
 - **DBH2:** astelehena: 10:20 – 11:15
 - **DBH3:** astelehena: 11:45 – 12:40
 - **DBH4:** asteartea: 10:20 – 11:15
 - **Batxilergoa 1 eta 2:** asteartea: 13:35 – 14:30

- **ORIENTAZIO DEPARTAMENDUA:**
 - osteguna 10:20 – 11:15

- **ZUZENDARITZA BATZORDEA :**
 - Asteazkena 11:45 – 12:40

- **BERRITZEGUNEKO BILERA**
 - Asteazkena: 9:30 – 11:30 (hilabetero)
 -

8-b.- Orientazio Akademiko Profesionala :

Lehen Hezkuntza: Zuzendaritzatik

Martxoa-apirila

- DBHri buruzko informazioa eman ikasle eta gurasoei

DBH3

Urtarrila- Apirila

Tutoretzan ikasleei :

- ii. Interesak eta gaitasunei buruzko galdesortak egin tutoretzan .
- iii. 4.mailako Hautazko gaiak zeintzuk diren azaldu eta aukeraketa bera egiteko prozedura argitu.
- iv. Aukeraketa ezberdinen ondorioak atera kasuen azterketak eginez. (Erabakiak hartzeko prestatze modura)
- v. Gurasoei DBH ondoren dauden irteeren argibide orokorrak eman: Gurasoentzat hitzaldia orientatzaileak

maiatza

- 1. Aukerako eta Hautazkoen aukeraketa. Informazio orriak.
- 2. Ikasleen bitartez gurasoei, idatziz, ikasleei emandako informazioa hel arazi.
- 3. Ikasleei DBH ondorengo irteeren argibide orokorrak eman
- 4. Tutoreek ikasle eta guraso guztiekin hitz egin (Banan banako elkarrizketak)
- 5. 3. mailako gurasoekin bilera orokorra egin: (beharren arabera)
 - o Aukera eta hautazko gaiak

DBH4

abendua
martxo

- ◆ Tutoritzan gaia landu *Aukeratu behar dut* txostenaren bidez:
 - o DBH ondoren zer
 - o Zein da nire etorkizuna
 - o Interesak
 - o Gaitasunak
 - o Nortasuna
 - o Emaizak
 - o Hezkuntza Sistema: Batxilergoa, Lanbide Heziketa Zikloak
 - o Aukeraketa
 - o Lanbide eta karrera ezberdinakInformazioa eman eta zalantzak argitu

- ◆ Lanbide mota ezberdinak sakondu interesen arabera.

- ◆ Bilera informatiboa orientatzaileak gurasoekin DBH ondorengo azaltzeko.

- ◆ Orientatzaileak ikasleekin (eta nahi duten gurasoekin) banan banako elkarrizketak aukerez eta aholku orientatzaileari buruzko argibideak ahoz emateko

Otsaila
apirila

- ◆ Lanbide Institutura bisitaldia

- ◆ Aurre matrikula eta matrikula bideratzen lagundu

- ◆ Ikasle bakoitzaren *Aholku orientatzailea* prestatu: tutoreak, orientatzaileak eta irakasleek kasu bakoitza banaka aztertu eta *Aholku orientatzailea* zehaztuko dute. Horretarako irakasle talde osoaren inplikazioa izango da. Hiru aspektu ezberdinetan beharrezkoak diren datuak bilduko ditugu:

- o Ikasle eta bere gurasoen asmoak ikasketa eta lanekin lotuta
- o Ikaslearen interesak eta lan esparru zehatzen arteko lotura
- o Ikas arlo ezberdinetan ikaslearen orain arteko emaitzak

- ◆ Guraso zein ikasleei *Aholku orientatzailea* ahoz eman

ekaina

- ◆ *Aholku orientatzailea* idatziz eman
- ◆ DBHko titulua lortu gabe derrigorrezko irakaskuntza uzten duten ikasleen *Aholku orientatzailea* prestatu,egin behar honetan ere irakasle taldearen parte hartzea ezinbestekoa da

Batxilergoa 1

Tutoretzan landu:

- Egingako aukeraketaren egokitasuna
- Autoezagutza: interesak,gaitasunak,nortasuna,...
- Nire meta pertsonalak
- Batxilergo ondorengo bideak:
 - Lanbide Heziketa
 - Unibertsitateko karrerak

Batxilergoa 2

Tutoretzan landu:

- Norbere buruaren ezagutza
- Unibertsitateko eta Goi Mailako Heziketa Zikloen informazioa eta bisitak.
- Sarrera frogak egingo dituzten ikasleei informazio erraztu.
- Etorkizuneko proiektua
- Aurre matrikulak : Lanbide heziketarako eta Selektibitaterako.
- Bakarkako orientazioa eskaini.

8-c.- FAMILIEI ZUZENDUTAKO SAIOAK

Taldean

- Urrian ikasturte hasierako bilera:
 - Zuzendaritzatik informazio orokorra
 - Tutoreak taldeari eta ikasturteari dagokion informazioa

Martxoa-Apirila

- Hezkuntza Sistema, DBH 3. mailaren ezaugarriak

- Erabakiak hartzea DBH 3an
- **Emozioak, eta Autoestimua**ren garrantzia
- Nola lagundu etxetik prozesuan
- 4. maila:
 - Hezkuntza Sistema, DBH 4. mailaren ezaugarriak
 - Erabakiak hartzea 4.ean
 - DBH ondoren zer
 - Heziketa zikloak – Unibertsitatea.
 - Aurre matrikulak
- Apirila :
 - Drogomenpekotasunaren prebentzioari buruzko saioa gurasoentzat Amankomunazgoko irakasleekin.

Bakarka :

- Tutoreak, gutxienez, 1. eta 3. ebaluazio ondoren izango ditu gurasoekin elkarrizketak
- 4. mailako ikasleak : orientatzailea ikasle bakoitzarekin (eta bere gurasoekin, hala nahi badute) egongo da, erabakia hartzean egon daitezkeen dudak argitzeko eta behar duten informazioa eskuratzeko.

Behar izanen arabera, gurasoak deituko dira ; bai bakarka eta bai taldean.

8-d.- HEZIKETA AFEKTIBO SEXUALA:

Programa hau, **Durangaldeko Amankomunazgoko** zerbitzuekin baliatuz bideratzen da. Horrela, maila bakoitzean gai zehatz batzuk lantzen dituzte prestatuta dauden begiraleekin ikastetxean bertan:

- Martxoan izango da eta saio kopuru hau izango dute:
 - DBH 1: 4 saio
 - DBH 2: 3 saio
 - DBH 3: 4 saio
 - DBH 4: 3 saio

8-e.- DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIOA:

Programa hau, **Durangaldeko Amankomunazgoko** zerbitzuekin baliatuz bideratzen da. Horrela, maila bakoitzean gai zehatz batzuk lantzen dituzte prestatuta dauden begiraleekin ikastetxean bertan:

- Abenduan izango dira saioa hauek eta honela banatuko dira:
 - 1. maila: Alkohola. Saio 1 (2 ordukoa) begiralearekin
 - 3. maila: Alkohola eta Kannabisa. Hiru saio begiralearekin
 - 4. maila: Droga ilegalak - Ludopatia: bi orduko saio bat begiralearekin.
 - Batxilergoa 1: Droga ilegalen arriskuak. 2 orduko saio bat.

- Programa honen barruan gurasoentzat saio bat eta irakasleentzat beste bat izateko aukera egongo da.

8-f.- GENERO INDARKERIA: DBH 2.mailan programako arduradunen eskutik landuko da. Talde bakoitzak 5 saio izango ditu,Urriaren 20etik-23ra .

8-g.- AUTOESTIMUA:

DBH 3 . mailan programako arduradunek zuzenduta eta irakasleek aplikatuta.

8-h.- GAZTEEN OSASUN INTEGRALA LANTZEKO PROGRAMA

ERAIN Taldeko adituen eskutik .

Batxilergoko 1.mailatan .Estres eta arrisku egoeretan jokabide eraginkorra izan dezaten prestatu .

Iraupena : 6 ordu .

Noiz:Urtarrila otsaila bitartean .

Batxilergo 2.maila .Antsietatea kudeatzeko baliabideak .

Iraupena : 2 ordu .

Noiz :Urtarrila otsaila bitartean .